**Eusko Alkartasunaren MOZIOA ARETXABALETAko Udaletxean eztabaidatzeko**

Datorren abenduaren 10ean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena beteko da. Aurten Ban Ki-Moon Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Giza Eskubideak sustatzeko kanpaina bat abiarazi du; “Guztiontzako Duintasuna eta Justizia” lelopean, kanpaina horrek ekintzak antolatzeko eskatzen die pertsonei, taldeei, erakundeei eta instituzioei Giza Eskubideak ezagutarazi, sustatu, indarrean mantendu eta defenda ditzaten eta, baita ere, haien aldeko konpromiso argiak hartzearen garrantziaz ohartaraz dezaten.

Guztiok dakigu gure eremu lokalean, gure herrian, giza eskubideak mehatxupean daudela eta urratu ere urratu egiten direla; beraz, gure herrikide batzuk, gurekin bizi diren familia batzuk, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen dituen eskubideen urraketa hauen biktima dira.

Hori dela-eta, Eusko Alkartasuna Udal Taldeak etengabeko omenaldia egin nahi die Giza Eskubideen urraketen biktima izan diren pertsona guztiei, bereziki beren bizitza, osotasun fisikoa zein morala edota askatasunak, mota guztietakoak, bortxaturik izan baldin badira, horretarako gure udalerrian Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari toki bat eskainiko zaiolarik haren defentsaren eta sustapenaren aldeko gure konpromiso aktiboaren adierazle gisa eta, baita ere, hori urratzearen injustizia pairatu duten guztiei omenaldi, ordaintza, errespetu eta aitortzaren sinbolo moduan.

Ondorioz, osoko bilkurari honako akordio hau har dezala proposatzen diogu:

1. Instituzio bezala, giza eskubideekin daukagun konpromisoa berritzeko kompromisoa hartzen dugu eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin bat, beren unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta elkarrekiko mendekotasuna defendatzekoa ere.

**MOCIÓN de Eusko Alkartasuna para su debate en el Ayuntamiento de ARETXABALETA**

El próximo 10 de diciembre se cumple el 60 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos. A lo largo de este año el Secretario General de Naciones Unidas, Ban Ki-Moon ha impulsado una campaña de promoción de los Derechos Humanos que, bajo el lema “Dignidad y Justicia para todas y todos” incluye una invitación a personas, grupos, organizaciones e instituciones para que realicen acciones que contribuyan al conocimiento, vigencia, defensa, promoción o toma de conciencia sobre la importancia de adoptar claros compromisos con los Derechos Humanos.

Todos somos conscientes de que en nuestro ámbito local, en nuestro país, hay derechos humanos amenazados y vulnerados y por tanto tenemos conciudadanas y conciudadanos nuestros, familias con las que convivimos, que son víctimas de estas vulneraciones de los derechos que forman parte de la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

Por esta razón el Grupo Municipal de Eusko Alkartasuna quiere rendir un homenaje perpetuo a todas las personas que han sido víctimas de vulneraciones de los Derechos Humanos, especialmente del Derechos a la Vida, a la Integridad Física y Moral, a la libertad en cualquiera de sus expresiones, dedicando un espacio de nuestro municipio a la Declaración Universal de los Derechos Humanos como expresión de nuestro compromiso activo con su defensa y promoción. Y símbolo de reconocimiento, respeto, reparación y homenaje a todas aquellas personas que han sufrido la injusticia de su vulneración.

En consecuencia proponemos al pleno la aprobación del siguiente acuerdo:

1. Como institución nos comprometemos a renovar el compromiso con los derechos humanos y a defender su universalidad, indivisibilidad e interdependencia, tal y como figuran en la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

2. Defentsa hau gure eguneroko lan instituzionalaren parte izango da, horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezarriz eta biktimei eta mundu osoan Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde lanean ari diren giza eskubideen defendatzaileei lagunduz.

3. Gure udalerriko leku publiko bat –kale, plaza edo parkea– Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari eskaintzea, izen hori ipiniz eta plaka edo oroigarri bat jarriz, haren defentsaren eta sustapenaren aldeko gure konpromiso aktiboaren adierazle gisa eta, baita ere, hori urratzearen injustizia pairatu duten pertsona guztiei omenaldi, ordaintza, errespetu eta aitortzaren sinbolo moduan.

4. Ekitaldi horretara herritarrak gonbidatzea beren parte-hartzearekin Giza Eskubideen aldeko konpromiso kolektiboa indar dadin, udalerri honetan bizi garen guztiontzat Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala bat egiteko topagune bihur dadin eta bakean eta askatasunean eraikitako etorkizun baten bermea izan dadin.

2. Esta defensa será parte de nuestro trabajo institucional diario mediante el establecimiento de los medios necesarios y a través del apoyo a las víctimas y a las defensoras y defensores de los Derechos Humanos que en todo el mundo trabajan por hacer real la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

*3.* Dedicar un espacio público –calle, plaza o parque- de nuestro municipio el nombre de *“Declaración Universal de los Derechos Humanos”* mediante la colocación de una placa o monumento que sea expresión de nuestro compromiso activo con su defensa y promoción, y símbolo de reconocimiento, respeto, reparación y homenaje a todas aquellas personas que han sufrido la injusticia de su vulneración.

*4.* Que al acto de dedicación se invite a la ciudadanía para que con su presencia se refuerce el compromiso colectivo con los Derechos Humanos y la “Declaración Universal de los Derechos Humanos” se convierta en lugar de encuentro y unidad de todas las personas que vivimos en este municipio, y garantía de un futuro en paz y libertad.